

Film laburren aurkezpena

Presentación de cortometrajes



ARAUTEGIA / NORMATIVA

EITB Mediak, APIKArekin, EPE-APVrekin eta IBAIArekin 2022an sinatutako hitzarmenaren arabera, film laburren gaineko eskubideak eskuratzeko baldintzak honakoak dira:

Aukeratuko diren lanak

Edozein generotako lan zinematografikoak izan daitezke. 60 minutu baino gutxiago iraun behar dute, eta aurkeztu beharko dira ICAAren Kalifikazio Ziurtagiria lortu eta 4 hilabete igaro baino lehen.

Kontratazio baldintzak

EITB Mediak telebista linealeko komunikazio publikorako eskubidea eskuratu du lurreko estaldura digitalaren eremuan, ustiatu daitekeen edozein telebista-modalitatetan.

Horrez gain, Internet bidez ikus-entzunezko komunikaziorako eskubidea baliatu ahal izango du, eskatutako zerbitzuaren bidez (VOD).

Obraren eskubideak lagatzeko epe hauek ezarzen dira:

- Hiru (3) urte, linealki emateko kontratuan ezarritako lizentzia-aldia hasten denetik.
- Mugarik gabekoak, Internet bidez eskatutako komunikazio-zerbitzurako (VOD).

Eskubide horiek eskuratzeko prezioa honako hau izango da:

- 175 euro minutuko, gehienez 2.625 euroraino.
- Fikziozko laburra irudi errealekoa bada, eta euskaraz filmatu bada, gutxieneko prezioa 230 euro minutukoa izango da, gehienez 3.500 euroraino.

Aipatutako lizentzia film laburraren estreinaldia EITBrena bada ordainduko da. Dagoeneko telebistan estreinatu bada, lizentzia % 25 murriztuko da.

Estas son las condiciones de adquisición de cortometrajes según el convenio firmado entre EITB Media y las asociaciones APIKA, EPE-APV e IBAIA en 2022:

Trabajos que se seleccionarán

Se aceptarán todos los géneros cinematográficos. Los trabajos deberán tener una duración inferior a sesenta minutos y ser presentados a través del portal de productoras de EITB no más tarde de 4 meses tras la fecha de la obtención del Certificado de Calificación del ICAA.

Condiciones de contratación

EITB Media adquirirá el derecho de comunicación pública en sistema televisivo lineal en el ámbito de cobertura terrestre digital en cualquier modalidad televisiva susceptible de explotación.

Adicionalmente podrá ejercitar el derecho de comunicación audiovisual a través de Internet mediante el servicio a petición (VOD).

Se establece el siguiente plazo de cesión de derechos de la obra:

- Tres (3) años a partir del inicio del periodo de licencia establecido en el contrato para la emisión en lineal.
- Ilimitados para el servicio de comunicación a petición a través de Internet (VOD).

El precio de adquisición de dichos derechos será de:

- 175 euros/ minuto, con un máximo de 2.625 euros.
- En el caso en el que el cortometraje sea de ficción de imagen real y haya sido rodado en euskera, el precio mínimo de adquisiciones-tablecido será de: 230 euros/ minuto con un máximo de 3.500 euros.

La licencia mencionada se abonará siempre y cuando el estreno del cortometraje sea de EITB. De haber sido ya estrenado en televisión, la licencia se reducirá en un 25 %.

Halaber, sari gehigarri bat ordainduko da kasu hauetan:

- Locarnoko, Canneseko, Veneziako edo Clermont-Ferrandeko jaialdietan saririk eskuratuz gero, 1.500 euro gehiago.
- Oscar sarietarako izendatuz gero, 3.000 euro gehiago.
- Goya sarietarako izendatuz gero, 1.500 euro gehiago.

Aurkezpena

Proiektuak aurkezteko eskatzen den dokumentazio guztia online baino ezingo da aurkeztu, atari honen bidez:

<https://www.eitbtaldea.eus/ekoiztetxeenataria/inicio.php?idioma=eu>

Dokumentazioa atariaren bidez aurkezteko epea hurrengo egunetako 17:00etan amaituko da:

1. batzorderako: maiatzaren 15ean
2. batzorderako: urriaren 31n

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Proiektuen aurkezpenarako beharrezkoa den dokumentazioa:

- Sinopsia (orrialde bat gehienez).
- Fitxa teknikoa (iraupena, hizkuntza, generoa, etab.).
- Fitxa artistikoa.
- Ikuskatzeko materiala (Vimeo bidez).
- Ziurtagiriak: Eusko Jaurlaritzaren laguntza; Kimuak katalogoan sartu izana; ICAAren kalifikazioa; obraren titulartasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (eredua araudian erantsi da).

Epez kanpo heltzen diren proiektuak, berez, hurrengo batzordera eramango dira.

ETBk bere webguneko ekoiztetxeen atariaren bidez jakinaraziko du erabakia.

Asimismo, se pagará una prima adicional si los cortometrajes han obtenido:

- Premios en los festivales de Locarno, Cannes, Venecia y/o Clermont Ferrand: Prima de 1.500 euros.
- Nominación a los premios Oscar: Prima de 3.000 euros
- Nominación a los premios Goya: Prima de 1.500 euros

Presentación

La documentación completa requerida para presentar los proyectos solo podrá presentarse de forma online a través de:

<https://www.eitbtaldea.eus/portalproductoras/inicio.php?idioma=es>

El plazo de presentación de la documentación a través del portal finalizará a las 17:00 horas de las fechas siguientes:

- 1ª Comisión: 15 de mayo
- 2ª Comisión: 31 de octubre

Documentación a presentar

La documentación requerida para la presentación de los proyectos es la siguiente:

- Sinopsis (máximo 1 página).
- Ficha técnica (incluyendo: duración, idioma, género, etc.).
- Ficha artística.
- Material de visionado (por Vimeo).
- Certificados varios: ayudas Gobierno Vasco; seleccionado para catálogo Kimuak; calificación ICAA; declaración responsable de titularidad sobre la obra (se adjunta modelo en la normativa).

Los proyectos presentados fuera de plazo para una comisión, serán automáticamente derivados a la siguiente.

ETB comunicará su decisión a través del Portal de Productoras.



EITB Media

Basurtuko Kaputxinoen kalea, 2
48013 Bilbao

T. (+34) 946 563 000

www.eitb.eus